

Foru aldundiek enpresa txikiei, autonomoei eta ABEEEk eragindako langileei laguntzeko zerga neurri berriak onartu dituzte

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek 2021 urtera luzatu dituzte Covid-19 pandemiak gehien eragin dien zergadunei laguntzeko hartutako zerga alorreko neurriak. Horretarako, bakoitzak bere gobernu organoan onartuko du martxotik hona martxan jarri diren neurri gehie nak datorren urtera luzatzea. Erabaki hauek, batez ere, autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak babestea dute helburu. Gainera, Pertsona Fisikoen Errentaren Zergan (PFEZ) neurri berri hauek hartzea adostu dute:

- 2020 eta 2021 urteetan PFEZaren aitortpena aurkezteari dagokionez, hiru lurralde historikoetan 12.000 euroatik 14.000 euroara igo da aitortpena derrigorrean aurkezteko muga. Aldi berean, 20.000 euroko muga ezartzen da, ordaintzaile bat baino gehiago dauden kasuetarako, eta betiere bigarren eta gainerako ordaintzaileen partetik jaso diren kantitateak urteko 2.000 euroak gainditzen ez dituzten bitartean.
- 2020 eta 2021 urteetarako baita ere, PFEZan salbuetsita geratzen dira administrazio publikoek langile autonomoei eman dizkieten ezohizko dirulaguntzak, Covid-19 gaitza dela eta beraien jarduera bertan behera utzi, paralizatu edota larriki kaltetu izanaren ondorioz. Honela, hiru euskal aldundiek azken asteetan beraien jarduera etetera behartuak izan diren sektoreei zuzendutako laguntzak osatzen dituzte.
- Covid-19 gaitza dela eta aldi baterako edo ohiko erregulazio espediente (ABEEE/EEE) egoeran dauden eta 2020 eta 2021 urteetan beraien BGAE hilabetekako modalitatean erreskatatzen duten pertsonak, berreskuratu duten kantitatea %75ean integratuko dute beraien oinarri likidagarrian.
- Langile autonomoak salbuetsita egongo dira 2020ko urteko laugarren hiruhilekoko PFEZko ordainketa zatikatua ordaintzeaz, normalean urtarrilean egiten dena. Honela, jarraipena ematen zaio urteko lehen hiruhilekotan ezarritako salbuespenari.

Bestalde, hiru foru aldundiek ezohizko gerorapenen erregimen, bermerik eta interesik gabea, zerga zorrak ordaintzeko. Ezohizko gerorapen hau eskatu ahal izango dute jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsonak, mikroenpresak eta enpresa txikiak. Zorraren

ordainketa bertan behera utziko da hiru hilabetez, eta zenbateko berdina izango duten hileroko sei kuotatan zatikatuta itzuli beharko da.

Luzatzen diren beste zenbait neurri

Gainera, hainbat dira luzatuko diren bestelako neurriak, beharrezko ikusten baitira krisiak gogorren kolpatu dituen sektore eta kolektiboetarako babes ekonomikoa eta bultzada emateko. Esaterako, PFEZaren kasuan, luzatu egiten dira zerga hobariak jasotzeko epeak honako kasu hauetan: ohiko etxebizitzaren erosketa, Etxebizitza Kontuan aurreztutako kantitateak gauzatzea, edota berrinbertsioa ohiko etxebizitzaren transmisioetatik.

Hauekin batera, 2021 urtera luzatuko da amortizazio azeleratua eta ezohizko irabazien berrinbertsioa, Sozietateen gaineko Zergan. Zerga honetan, datorren urtean ere mantendu egingo da enplegua sortzeagatik martxan jarritako kenkaria. Neurri honek hobariaren gehienezko muga 7.500 eurora arte igotzen du.

Hiru foru aldundiek ostegun honetan egingo den Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren hurrengo bilerara eramango dituzten neurri hauek eta, ondoren, datorren abenduaren 1ean erakunde bakoitzak egingo duen diputatuen kontseiluetan onartzea aurreikusten dituzte.

Las diputaciones forales aprueban nuevas medidas tributarias de apoyo a pequeñas empresas, autónomos y empleados afectados por ERTE

Las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa extenderán a 2021 las medidas tributarias de apoyo a los contribuyentes más afectados por las consecuencias económicas de la pandemia del Covid-19. Para ello, aprobarán en sus respectivos órganos de gobierno la prórroga al próximo ejercicio de la mayor parte de las medidas aprobadas desde el pasado mes de marzo, dirigidas a apoyar a las y los trabajadores autónomos, microempresas y pymes. Así mismo, han acordado adoptar las siguientes nuevas medidas en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

- Respecto a la obligación de declarar en IRPF en los ejercicios 2020 y 2021, en los tres territorios históricos se eleva de 12.000 a 14.000 el límite que fija la obligación de declarar. Así mismo se establece el límite de 20.000 euros, en los supuestos de más de un pagador, cuando la suma de las cantidades percibidas del segundo y restantes pagadores no supere en su conjunto la cantidad de 2.000 euros anuales.
- También para los ejercicios 2020 y 2021 se declaran exentas del pago de IRPF determinadas rentas correspondientes a ayudas extraordinarias otorgadas por las administraciones públicas a las y los trabajadores autónomos como consecuencia de la suspensión, paralización o grave afectación de su actividad a causa del Covid-19. De esta manera, las tres diputaciones vascas complementan las ayudas a los sectores más perjudicados por las consecuencias económicas de la crisis.
- Aquellas personas en situación de ERTE o ERE como consecuencia del Covid-19 que rescaten su EPSV en forma de renta mensual tanto en el ejercicio 2020 como en el 2021 integrarán en su base liquidable el 75% de la cantidad recuperada.
- Las y los trabajadores autónomos estarán exentos de abonar el pago fraccionado de IRPF correspondiente al cuarto trimestre de 2020, que se abonaba normalmente en el mes de enero. Esta exención continúa a la establecida para los pagos fraccionados correspondientes a los tres primeros trimestres de 2020.

Por otro lado, las tres diputaciones forales establecen un régimen de aplazamientos excepcionales, sin garantías ni intereses, para el pago de las deudas tributarias. Podrán beneficiarse de este aplazamiento excepcional las personas físicas que realizan actividades económicas, las microempresas y las pequeñas empresas. El pago de la deuda se suspenderá durante tres meses, y deberá ingresarse mediante su fraccionamiento en seis cuotas mensuales del mismo importe.

Otras medidas que se prorrogan

Asimismo, son varias las medidas que se van a prorrogar, al considerar que siguen siendo necesarias para el impulso y el apoyo económico a los sectores y colectivos más afectados por la crisis. Tal es el caso de la ampliación de plazos para beneficiarse de ventajas fiscales en el IRPF en caso de adquisición de vivienda habitual, materialización de las cantidades ahorradas en la Cuenta Vivienda o reinversión por transmisión de vivienda habitual.

Asimismo, se prorroga a 2021 la amortización acelerada y la reinversión de beneficios extraordinarios en el Impuesto sobre Sociedades. En este impuesto, se mantendrán también en el año próximo las mejoras en la deducción por creación de empleo que elevan el límite máximo de deducción hasta los 7.500 euros.

Las tres diputaciones forales trasladarán estas medidas a la próxima reunión, este jueves, del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, y prevén aprobarlas en sus respectivos consejos de gobierno del martes 1 de diciembre.